

Inkonformismoa mesedegarria eta positiboa da, lagundu egiten baitigu gure burua hobetzen, gero eta hobeagoak izaten eta bizitzako balien eta lehentasunen bila aurrera egiten, gure burua gogobetetzearen eta hazkunde pertsonalaren bila.

Hona hemen Arizmendiarrietaren hainbat gogoeta balio horri buruz:

Asebeteta sentitzea onartu ezin den luxua da.

Asebeteta sentitzea onartu ezin den luxua da; giza kontzientziak eta kontzientzia sozialak duintasunez bizi nahi dutenei onartu ezin dieten jarrera da. Aukera batzuez gozaten dutenek beraien eta besteen etengabeko garapenerako prozesu bat bultzatu eta artikulatzera bideratutako ekarpenetan pentsatu behar dute. p248

Beharrezkoa da hobetzea, ezinbestekoa da erakundean bertan zein etorkizunari begirako proiektioan eta konpromisoetan hainbeste gustatzen ez zaizkigunak eraldatzeko borroka egitea. p244

Ez dugu barkamena eskatuko gudan ikus dezaketen mugapenengatik. Abian gaude. Gure akatsez ohartarazi eta onartu ditugun printzipio batzuekiko leial ez garela aurpegiratzen badigute ere, eskerrak ematen dizkiegu. Ahul edo indarrik gabe ikusten gaituzte, baina lanaren kausarekiko eta justizia sozialarekiko leial garela, horregatik laguntzeko eskatzen diegu. p250

Harrigarria da pentsatzea garaipenaren hoberena borroka dela. p252

Bide onean goaz eta ez daukagu asmorik inolako helmugan gelditzeko askatasunak eta justiziak gure laguntzaren premia duten bitartean. p262

Guk aldarrikatzen duguna da bai etsipenetik bai kontrol bako matxinadatik bereizten gaituzten arrazionaltasuna eta diziplina. p385